



Urduritasuna

1

Begiratu Emoziotegiko 20-21. orrialdeetako irudiari, eta hautatu kasu bakoitzean egokien iruditzen zaizun erantzuna.

- Zertan ari dira jolasten bi animalia protagonistak?
 - Elkarri tronpan korapiloak egitera.
 - Tronpatik tira egitera.
- Nork uste duzu irabaziko duela?
 - Indartsuenak.
 - Zuhurrenak.
- Zer zailtasun dute irabazteko?
 - Talde bakoitzeko kideek tiraka dabilena distraitzen dute.
 - Arerioak kontrako noranzkoan egiten du indarra.

2

Zer gertatuko da bi animalietako batek irabazten duenean? Marraztu.

3

Irakurri **mehatxatu** aditzaren definizioa, eta irakurri esaldiak. Kontuz! Esaldi batean aditza gaizki erabilia dago. Inguratu.

mehatxatu

Norbaiti, hitzez edo keinuz, eta beldurtzeko asmoz, kalte egin nahi zaiola adierazi.

- Laino ilunak euria mehatxatzen ari dira.
- Koldok mehatxu egin zidan, ukabila jasota.
- Mikelek panpina hautsiko diola mehatxu egin dio arreba txikiari.
- Joseba mehatxuka dabil egunero, denak joko dituela esanez.
- Amak mehatxu egin zidan bazkaria bukatzen ez banuen ez nintzela parkera joango.

4

Irakurri **mehatxatu** hitzaren familiako hitz hauek, eta idatzi haien esanahia bakoitzaren ondoan.

mehatxatu > mehatxu mehatxatzaile mehatxuzko

Kalteren bat eragiteho itxura duena. →

Egin nahi den kaltearen ohartarazpena. →

Arrisku batez ohartarazten duena. →

5 Zergatik izan daitezke mehatxatzaileak egoera hauek? Azaldu

- Eskola berri batera iristea.

- Ikasgaiari buruzko galderak egiten dizkigutenean ikasi gabe izatea.

6 Zer uste duzu direla **talka egiten duten interesak**? Azaldu, eta eman adibide bat.

7 Nola jakin urduri ote zauden? Markatu sintomak.

- | | |
|--|--------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> artegasuna | <input type="checkbox"/> beldurra |
| <input type="checkbox"/> haserre bizia | <input type="checkbox"/> ezinegona |
| <input type="checkbox"/> sosegurik eza | <input type="checkbox"/> lasaitasuna |

8 Irakurri Mara eta Xabierren amaxoren istorioa, eta erantzun galderei.

Nire seme-alabek jolas-parkera joan nahi dute datorren asteburuan. Baina nik nire ahizpari esan nion bisitan etor zitekeela gure etxera. Nekatuta nago, eta ez daukat errusiar mendian ibiltzeko gogorik...

Ama

● Ba al dago talka egiten duen interesik? Zein?

Mara

Atzo jolas-parkera joan ginen, baina ez zirudien ama oso pozik zegoenik... Ez zen errusiar mendian ere ibili, beste batzuetan ez bezala, eta berehala esan zuen etxera itzuli behar genuela.

● Uste duzu egun atsegina izan zela familiarentzat? Zergatik?

● Nola saihestu zezaketen egoera hori?

9

Noiz egiten dute talka zure interesek zure familiako kideren baten interesekin? Idatzi bi adibide.

- Orain, proposatu bi irtenbide kasu horietako batentzat. Irtenbide batean, zuk eman behar duzu amore; bestean, beste pertsonak.

10

Pentsa ezazu "Urduritasun gorena" jolasean jolas egitera gonbidatzen zaituztela. Asmatu zertan datzan jolasa eta zein diren arau nagusiak.





Urduritasuna

OHARRAK

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html.